BAT!

# GURE ARTEKO HARREMANAK

## BESTEEN LEKUAN JARTZEN NAIZ NI NEU IZATEN

### French roast

Bideo labur honetan pertsonaia bereziak azaltzen dira eta haien izaerek hausnartzeko aukera ematen dute.



*French roast* bideoa

Bideoa deskargatzeko helbidea:
https://www.youtube.com/watch?v=wXW2b2ExLls

OHARRA: bideoa ikustean, batzuetan gelditu edo atzera egin beharko da ikasleek ondo uler dezaten bideoan adierazten dena.

Oso interesgarria da aztertzea pertsonaien jokabidea eta egiten dutenaren ondorioak.

- ✓ Kafea hartzen ari den gizonak zergatik ez du esaten ez duela aurkitzen dirua?
- ✓ Amona? Nola eraman daiteke hainbeste diru?
- ✓ Eskalea? Zergatik ordaintzen dio kafea gizonari? Aurrez ez da berarekin ondo portatu.

Ahal bada, ondorioak aterako ditugu: eskalea gizonaren *zapatetan* jarri da, berak sentitu duena sentitu du eta, diru gutxi izan arren, ordaindu dizkio zorrak.

Gizona harrituta gelditu da. Zergatik? Berari ez zitzaion bururatuko...